




URRIAK 13

EXKAX – IZU (831m) – ARTIKUTZA

Ikasturte berri honetako lehenengo irteeran ibilbide arrunt ederra eta era berean erraza egingo dugu. Exkaxetik irten eta Galtzarrietako magaletik Bidango gainerantz hartuko dugu. Bideak Artikutzako mugetako hesiaren eskuin zein ezkerrera doan bide zidorretik aurrera egiten du, eta laster iritsiko gara Pagolletara. Han eskuinera Artikutzako urtegia, ekialdera Ekaitza eta Mendaurreko gainak eta ipar ekialdera Laruneko tontorra ikusiko ditugu. Berehala izango dugu Izuko tontor apala (831m) aurrean eta pagadi eder bat pasa ondoren, horren gainera iritsi eta bertan hamaiketako egingo dugu. Hortik aurrerako bideak Artikutzarantz behera egiten du. Lehendabizi bide estu batetik eta, ondoren, pistatik. Artikutzan bukatuko dugu 11,5km dituen ibilbide polit hori.



IRTEERA ORDUA: 09:00etan Ikastolako aparkalekutik

ITZULERA ORDUA: 14:00etan

PREZIOA:

- Ikasleak 5 €
- Helduak 7 €

OHARRAK:

1. Komenigarria da aldatzeko arropa eramatea.
2. Ibilaldira joaten diren ikasleen artean opariak zozkatuko dira.
3. Mendi Taldearen urteko irteeren informazioa eta irteeratako argazkiak www.haurtzaroikastola.net.

